

# **SUPERMERKATU KOOPERATIBOAK ETA PARTE- HARTZAILEAK**

*Posted on 17/10/2019 by Naider*

**2016an, La Louve supermerkatu kooperatiboa eta parte-hartzailea ireki zuen Parisko XVIII. barrutian ("La Loba"), nagusi den kontsumo ereduarekin kontrajartzen duena. Bertan, kontsumitzen dutenak kooperatibako bazkide eta langileak dira: lau astean behin euren denboraren 3 ordu eman behar dituzte salmenta, ordezkapen edo mantentze lanetan. Horrela, kontsumitzaileek bertatik bertara ezagutzen dute zein hornitzailetatik eta zein preziotan erosten diren produktuak, eta zein den aplikatzen zaien marjina (murriztua). Kideak aktore bihurtzen dira euren kontsumoan, eta erosten duten ingurunean.**

**La Louve-k bere eredua Park Slope Food Coop (PSFC) kooperatiban supermerkatuan oinarritzen du, 1973az geroztik Brooklyn-en (New York) funtzionatzen duena eta 16.000 bazkide dituena.**

**There are no comments yet.**